

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarri berezia / Ostirala martxoak 6

## Lerako txakurrak, abentura berria

Mendizaletasuna zen, orain dela gutxi arte, euskaldunon biziotako bat. Bizioa edota zaletasuna. Elurra kranpoiak eta txano dotoreak estrenatzeko baino ez zen erabiltzen, Belagoa aldera joaterakoan. Soilik dirudunek hartzen zituzten Candanchu edota Astunerako bidai luzeak, ondoren be-turreko disdiratsuek aurpegian utzitako markak harro harro erakusteko. Baina fondoko eskiak ireki zuen bidea, eta mendia eta elurra batzeko aukera ona antzeman zen. Hortik aurrera, berritasun ugari, bitxikeria franko. Azkena, lerako txakurrak. Nafarroan duela hiru urte ezaguna, Koikili Fagoaga lesakarra dugu Espainiako txapeldun ordea, eta hasia da jadanik Europara ere ateratzen, lasiterketetara. Txakurrak ziren orain arteko arazoa, baina Iruñeko Soltxate txakurtegia trebatu egin da horretan. Jendearengana zabaltzea baino ez da falta orain, abenturazaleendako osagarri guztiak bait ditu.

### Barnean

### EUSKARA



Altsasun euskal txokoa sortzeko asmoa martxan / VII

### AROZENA



Neska bat nafar bertsolariekin lehendabiziz / VIII



### Metropoli forala



FELIPE RIUS

Nostalgialko garaiak direla dirudi. Apokaliptikoak bukatu dira, gehienak desagertu dira, eta gelditzen direnak oso zaharrak dira, iraganaz hitzegiten besterik ez dakitenak. Garaipena integratuena da, besteak kejaru egiten dira eta hobeak izan omen ziren urteez oroitzen dira, ez dute inolako berpizkunderik etorriko denik uste eta zuribeltzeko pelikuletan errefuxiatzen dira, noizpait legendarioak izan ziren musikoen disko raiatuak entzuten dituzte, eta Mario Conde telebistan azaltzen den bakoitzean komunera joaten dira egongelako KILIM-a ez zikintzeko.

Haiek ere agertzen dira telebistan eta ia negarrez kontatzen digute nola bildu zuten dirua Rolling-en kontzertura joateko. Droga eta sexua deskubritu zituzten eta berrogeita hamar urtetako apokaliptiko ohi batek, irabazleen artean daudenetako batek —ez dira denak galtzaileak, jakina—, onenak Lou Reed-ek orduan hain maite zuen alde arriskutsuak zulora eramane zituela dio. Nik sinetsi egiten diot, bera baino —askoz?— gazteagoa izan arren, besteok sortezten ibiliak garen amildegietan erori diren lagun askoren funeraletan izana naiz. Gau euritsuetan tonto samarra jartzen naiz eta argi guztiak itzalita beraian pentsatzen dut minutu gutxi batzuek, goma zulaturik duen kafetera italiar kafea egiten den bitartean, gure apokaliptikotasuna edo gure integrazioa dudatan jarriz.

Erresistitzen segitzen dugu ziur aski, baina urteak aurrera doaz eta eusteko gaitasuna ere galtzen ari gara ilearekin batera. Batzuk iadanik ez dira mugitzen sofatik BEAUTIFULEkoak pantailaratzen direnean eta beste batzuk kostotik isostarrera pasatu dira. Nik, euria ari ez duen gauetan, Miles Davisen disko bat entzuten dut kaskoak jarrita eta Edward G. Robinson azaltzen den edozein pelikularen bidea jartzen dut telebistaren bolumena kenduta. Horrela askoz hobeki lo egiten dut, nire buruari apokaliptikoa ala integratua naizen galdetu gabe.



## Gure Aukerak

### MUSIKA

**Alia Musica** taldeak musika historikoko kontzertua eskeiniko du gaur ostiralean, hilak 6, Iruñeko Santo Domingo elizan. Kontzertuan Erdi Aroko kristau erregeen garaiko musika entzun ahal izanen da, eta baita judu-espainiar abestiak ere. Emanaldia arratsaldeko zortzietan izanen da.

### MINTZALDIAK

**Medialuna** taldea izanen da heldu den ostegunean, hilak 12, aipagai, Nafar Ateneoak poesia taldeei buruz antolatu duen zikloari amaiera emateko. Mintzaldia arratsaldeko zortzietan izanen da Iruñeko Aurrezki Kutxak Armadaren Etorbidean duen erakustokian.

**Sahara ere Independentea** izeneko mintzaldia eskainiko du gaur arratsaldeko zortzietan Tere Arostegik, Askapenak antolaturik, Jarauta kalean duen aretoan. 1.884ean hasi eta orain arte gertatutakoak hitzegingo du hizlariak.

**Komunikabideen Botereari** buruz hitzegingo du gaur arratsaldean Luis Bucetak, Nafarroako Museok antolatutako 'Boterea eta Autoritatea' izeneko ihardunaldien barruan. Museoko ekitaldi aretoan izango da hitzaldia, arratsaldeko zazpitan eta horrekin bukatuko da zikloa.

### ERAKUSKETAK

**Txiki Medina** pintorearen erakusketa ikusgai dago Nafarroako Aurrezki Kutxak Rodezno Kontea kalean duen aretoan, igandea arte. Artista hau San Martin Unxen jaio zen

### ERRAN DUTE

**Neronek erabaki ahal izango banu, gusto nuke berriro presidenterako hautagaia ez banintz».**

**Gabriel Urralburu**  
PSN-PSOeko buruzagia

**«Opus Dei ez da sekta bat, bere jerarkia eta, akaso, bere saildua duelako».**

**Pilar Salarrullana**  
Sektetan aditua

**«UPNn ikusi ditut zenbait jarrerera, gutxienez, antimokratikoak direnak».**

**Jose Marin Mertinez**  
UPNko militantea ohia

**«Esploradoraren itxura Salomon erregearen meategietan pentsatzen bururatu zitzaidan».**

**Donan Pher**  
Boligrafoen enperadorea

Asteburu honetan izanen da gizonetzkoendako 52. Xabierraldia. Gaur bertan bidetari ekingo dieten erromesendako zenbait sorospen toki paratu dira dagoeneko, eta horiek bihar, larunbata, eta etzi, igandea, areagotu egingo dira. Aukera aproposa berna astintzeko eta fedea apurtxo bat pizteko.

Xabierraldiak Nafarroa osoko jendea biltzen ohi du eta ohitura bada Zangozan larunbatean biltzea. Iruñetik aterako direnendako Elon izanen da lehendabiziko sorospen tokia, ohitura ez duten askok babak eta nekeen ajeak somatzen hasiak bait dituzte ordurako. Loitiko gainan ere beste bat izanen da, eta hortik aurrera, Judaseko Bentan eta Xabierrren bertan ere izanen dira.

Erriberatik datozenendako, Iugoko Birjinean paratuko da lehendabiziko sorospen tokia, eta ondoren, Melidan, Oibako monastegian, Santacaran eta Zarrakastelun. Orobat, Tafallan eta San Martin Unxen ere postuak izanen dira.

Iruñetik aterako direnendako, Udalaren babes zibila arloak gomen-dioa eman du Iruñea eta Noainen arteko bidetik joan beharrean Zadarre-

1.958an eta Pedro Salaberriren tailerrean ikasi zuen. Bere lanak itxura fotografikoa dauka, eta horren gainean kolore asko erabiltzen ditu.

**Salvador Villafañe** artistaren erakusketa Tafallako Kultur Etxean, martxoaren 15a arte, Kulturako Patronatuak antolatu dituen ekintzen

### ASTEKO PERTSONAIAK

#### Fernando Arretxe



Pilotaria

Luzaidako atzelaria eta Bergara II Ljoan den ostiralean nagusitu ziren Gasteizko Ogeta pilotalekuan binakako txapelketan. Legezkoa da esatea txoko hau bi nafarrendako dela, biek merezi izan bait dute garaipena eta horrek dakartzan laudorio guztiak. Baina, nola edo hala, finala eta txapelketa osoa ere atzelariak egingo lanean erabaki zela esatea badago, eta horretan Fernando Arretxe bere profesionaltasuna erakutsi du garbi asko. Zezeaga eta Maiz II ziren hasiera batean arlo horretan nagusiak, teoriarik, baina lehendabizikoak huts egin zuen finalean eta bigarrenak urteak aurrera doazela erakutsi du. Luzaidekoak txapelketan bereziki bere mentalizazioa nabarmendu du eta orain buruz buruko txapelketa du aurrean, «gustokoen duena». Arerio zaila edonorendako,

#### J.C. Perez Lapazaran



Nekazaritza kontseilaria

Nafarroako Nekazaritza kontseilariak 'Leader' proiektuaren inguruan egindako adierazpenak ez ziren egia izan, Espainiako Ministeritzaren txosten baten arabera. Lapazaran azaroan agertu zen Parlamentuan, ITG-V proiektutik kentzeko erabakia azaltzeko. Orduan esan zuenez, erakunde honek aurkeztutako proiektua ez zela egokia, akats asko zituela eta beste erakunde bat sortzearen aldekoa agertu zen. Lapazaranek erabakia Ministeritzak berak gomendatutakoa zela azaldu zuen. Ministeritzak egindako txostenean, baina, horrelakorik ez dagoela azaltzen da eta ITG-V erakunde egokitzat hartzen du proiektua aurrera eramateko. Txosten berean, Ministeritzak zein EK-k erakunde hau aukeratu zutela azaltzen da, Lapazaranek orduan esan zuena gezurtatuz.

#### Angel Rincon



HBko parlamentari berria

Corteseko alkate ohiak joan zen Castelehenean zin egin zuen Nafarroako Parlamentuko bere kargu berri. Rinconek Zutoia Mitxelek utzitako postua hartu du, eta hementik aurrera hezkuntza eta nekazaritza batzordeetan arituko da bereziki. Rinconek euskaraz egin zuen zinpea, eta «legeak hala behartuta» gaineratu zuen. Zutoia kargutik kentzea erabakia zuen HBk hauteskundeak egin zirenetik, baina ETaren ustezko kolaborazioa zela eta epaiketaren erabakia publikoan egin arte itxoitea erabaki zuen. Mitxel behin libre, HBko bere batzarrean egindako lanarekin segituko du eta Rinconek beteko du berak utzitakoa. Angel Rincon bi legegintzalditan izan zen Corteseko alkatea, eta egun bertako zinegotzia da. Aditua da Erriberako nekazaritza gaietan.

## Xabierraldia



ko errepidetik joateko. Hortik, Txoerako errepidea, Huescakoarekin lotu arte, «oinetako segurtasuna bermatzeko eta errepideen egoera hobetzeko». Horretarako, iragarki franko paratu dira eta Udaltzaingoa ere bertan arituko da. Igandea izanen

da egun nagusia, Xabierrren bertan izanen da meza eta kontzentrazioarekin, baina bi egunetako aprobeztatzea baduzue, hainbestetan ko-tzez edo autobusez egindako bidaiak oinez egiteko parada ederra dago, koadrilan zein bakarrik.

barruan. Erakusketan kolorezko zurlanak ikus daitezke, tankera artistiko desberdinetakoak, erronanikoak, gotikoak, klasikoak eta marfilez egindakoak ere badaude.

**Zeramika** erakusketa izango da Arrano Elkartearen otsailaren 29tik martxoaren 13ra arte. Erakusketa

honen gaia 'Sorginkeria eta egilea' izanen da. Tasta taldeak egindako lana da, eta igandean ezik, egunero bisita daiteke zazpiztatik hamarretara.

**Antoni Tapiesen** lana Kribia galerian dago ikusgai. Kataluniako artistaren 15 grabatu eskegita daude

galeriaren hormetan, eta beste zazpi aurrerantzean jarriko dituzte ikusgai. Lanak, berri-berriak dira, Antoni Tapiesen 1991 eta 1992 urte bitartean egindakoak hain zuzen ere.

### ZINEMA

**'Gernika, arbolaren espiritua'** izeneko filmea ikusgai izanen da heldu den asteazkenean, martxoak 11, Iruñeko Principe de Viana zinematokian. Proiektzioa arratsaldeko zortzietan izanen da. Laurence Boultingek 1987an egindakoa, sagardotegi batean ospatzen den eztei-bazkari batean, hiru emakumek Gernika bonbardatu zuteneko oroitzapenak berritzen dituzte. Egun berean 'Mintaka' filmea ere ikusgai izanen da, Felipe Uriarte mendizaleak egindakoa.

**'Itsasorako bidaiak.** Mendi txuria. Euskal Herria sortu zen eguna' izeneko diapositiba emanaldia izanen da gaur arratsaldeko zortzietan Nafar Kirol Taldeak antolaturik, Jarauta kaleko aretoan. Ikuskizuna Antton Iturizak zuzenduko du.

### KIROLAK

**Belagoako goimendi ibilaldia** bihar larunbata, hasiko da. Belagoako aterpetxean arratsaldeko zortzietan ospatuko den afariarekin. Partaideek bertara joateko beren garraioak erabili beharko dituzte, autobusik ez bait dute jarri. Izena eman nahi duenak aterpean eman behar du. Izene-matearen kuota 3.300 pezetakoa da, eta bertan afaria, gaba, gosaria eta bazkaria sartzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Nafarroa Kirol Taldekoek emanen dute.

### ADI !

**EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0**

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

**XORROXIN IRRATIA FM 107.5**

Egunero 13.00etatik 13.45etara... Informazio Saioa Baztan, Mamerka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

**HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9**

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratsaio musikala. Narrazioak.

**RNE RADIO 1 OM 835**

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

**ARALAR IRRATIA FM 106.2**

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.




## 'Orhipean', gure herria ezagutzen

PATXI ULAIAR / IRUNEA

«Zuri, Euskara, eta berexiki orei gauren lurtean il urran daon Aezkoako Uskarari; zuri esker xakin nue nor nizen mundu gontan eta zaurorrek erman nuzu lan gau eitra».

Ez da liburu bati ematen ohi zaion aurkezpena, baina ez liburu, ez aurkezlea, ez bere nahia, ez dira ohizkoak. Pamiela argitaletxeak atera berri duen 'Orhipean' liburuak euskal kultura modu errazean ezagutzen laguntzen du eta erakargarria, bizia eta bitxia da. Egileak dioen bezala, «ez da tesi sakon bat, ez eta erabiltzen ez den liburu sorta handi horietakoa, baina bai Herria —bere osotasunean— ezagutzen hasteko aise egiten den bidexka, xendra. Bere helburua hala izatea da bederen. Orrialde hauek ikuskatzerakoan Herriaz —zutaz alegia— zertxobait ikasiko bazenu, vede hori bete li-

tzateke». Ederki apainduta eta osatua, historia, ohitura, bizimodua, kultura, ingurua, euskaldunok aldamenen eta barnean dugunaren berri ematen digu, modu apalez, eta atseginez.



Gaztagie.

Historiaz mintzatzerakoan, historiaurrea, pasabideak —bikingoak, Done Jakue, Frankoak—, eta Euskal Herria egiten saiatu ziren euskaldunak —Matalas, Santxo Azkarra, Dominique Joseph Garat— agertzen dira. Bizimoduan, bizitoki desberdinak, herri eta auzoak, heriotzaren inguruko mito eta sinismenak —hilerriak, jarlekuak, hilarria, argizaiola— eta erlijio zaharrak zituen ohi-turak azaltzen dira sinpleki eta ulerterraz. Horiakin batera, magia eta mitologia, laminak, iruñariak, harriak, herensugea, mitologiako zenbait izaki...


Landareak —elorria, haritza, eguzkiaren lorea, ereinotza— eta animaliak —kukua, erleak, marigo-

rria, hartza— beren ezaugarriak, mintzo bereziak, zenbait adibide esanguratsuak.

Bizimoduan, artzaingoa, nekazaritza, olagintza, arrantza, eta kanpora joan beharra, emigrazioa, euskal etxeak, urrutirako bideak, pilota, al-dizkariak. Euskaldunen erbeste bideak.

Ondotik bertako kirolak —bola-joka, harrijasotzaileak, aizkolariak, idi-demak, estropadak, pilota— garai ezberdinekin lotutako festak, eguberriak, ihauteriak —joaldunak, Lantz, bolantak, zanpantzarrik—, dantzak, phastualak. Ahozko literatura, bertsolaritza —Etxahun, Xalbador, Xenpelar—, literatura idatzia.

Ez dago dena, baina hori ere ez da helburua. Helburua dibulgazioa da, ikusten ari garen gure kulturaren suntsipena, Xamarren esanetan, «neurri handian preziatzen ez dugulako delako, ez dugu ezagutzen eta».



Argizaiola.



Hilarria.

## Donazaharren hasiko da igandean aurtengo Bertsolari Txapelketa

P.U. / IRUNEA

Heldu den igandean hasiko da Donazaharren aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Nafarroa Behereko herririk zortzi bertsolarien bisita jasoko du aspaldilko partez, eta antolatzaileek zaletu frankoren esperoan ere badaude.

Hasieran iragarrita zegoen zortzikotea, baina, ez da abestuko duena, Josetxo Yantzi lesakarrak ez bait du parte hartuko. Erdi gaixorik, nonbait, azkenean ez da Donezaharrera azalduko, eta elkarteak ordezkoan jartzeko Luis Olaetxea lesakarra aukeratu du. Berarekin batera hasieratik iragarrita zeuden bertsolariak arituko dira ostatuan, hau da, Jean Pier Mendiburu heletarra, Mixel Aire 'Xalbador' urepeldarra, Joanes Arrosagarai aintzilearra, Txomin Amorena zugarramurdiarra, Moises Jaso gaintzarra, Antonio Olano aranoarra eta Kexux Arzallus hendaiarra.

Beste urtetan bezala ere, herri bazkaria izango da ostatuan bertan, bertsolari, epaimahaiko eta abarrek. Ostatuan hirurehun bat lagun sartzen dira eta bazkaria ondotik izango da bertso saioa, arratsaldeko lauretan hasi beharrekoa.

Aurtengo txapelketa honi hasiera emateko, beraz, saio polita ikusteko aukera, iaz bigarren eta hirugarren-

gelditu zirenak arituko bait dira bertan. Jean Pier Mendiburu bigarren sailkatu zen, Manolo Arozena txapelaren atzetik, eta Mixel Aire 'Xalbador' hirugarren postuan.

Bi koblakari hauek piztuko dute zaletuen arreta handien, adituak bait dira oso bai txapelketetan nola finalera heltzean ere. Heletarrak 1980tik hona txapelketa guztietan hartu du parte, 1990ekoan ezik, eta oso emaitza bikainekin. Bi aldiz txapeldun —1981ean eta 1984ean—, eta bitan txapeldunordea —1982an, Joxemiel Argiñarenaren atzetik, eta iazko txapel-


pelketan, Manolo Arozenaren atzetik— izan da. Beste saio guztietan oso ondo aritu da Mendiburu, sei aldiz hirugarrena izan bait da.

Mixel Aire 'Xalbador' gabe ere, nekez ulertu litezke azken urteotako Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Hiru txapela jantzita, —1980, 1985 eta 1988an— bera da, Miguel Arozamena lesakarra eta Joxemiel Argiñarena errazkindarrarekin batera horrelako marka lortu duen nafar bertsolari bakarra. 1980tik ere ez du huts egin Xalbadorrek, eta beti aritu da onenen artean.



Jean Pier Mendiburu, Elizondoko iazko finalean.

CARLOS VILLAGRAN



Juan Carlos Etxegoien, 'Xamar'.

JOXE

mintzoak

### Lekunberriko kontzejuari

● Nori berea da zuzenbidea, eta horregatik lerro hauen bitartez eskertu nahi dut publikoki Lekunberriko kontzejua, Nafarroako Elbarri fisiko eta Sentsorialen izenean eta nirean ere bai, herriko lan publikoak egitean gogoan hartu gaituelako elbarriok, edo gutxienez aintzakotzat hartu duelako 4/1988ko uztailaren 11ko Foru Legean Oztopo Fisiko eta Sentsolariei buruzkoa.

Lehenengo egunean egokitu zitzaidan Lekunberriko Parrokia eta aldi berean gure izeba zen Rafaela Begiristainen aldeko hileta-elizkizunetan esku hartzeko, eta frogatu ahal izan nuen nola bertako kontzejua arduratu den eliza —parrokia— aurreko hiru kokxa irtenbideratzen bi aldatsen bidez.

Aldi berean ere esan dezaket Kultur Etxea, zaharren egoitza, pilotalekua, eta abar, helgarriak direla, lehendabiziko biak barrutik ikusi ez baditut ere. Era berean ere ziurta dezaket Lekunberriko kontzejuak herriko kaleak erosoak egin dituela gure kolektiboarentzat, eta hor daude egin dituen espaloien jeitsierak eta eskola zahararen aldapa egokiak, 'nesken' aldean.

Guzti hau eskertzeko da eta berriro ere berresten dut geure esker ona. Zeren eta «ongi jaiotakoak omen bait dira esker onekoenak izaten». Goragoko guztia esan ondoren, eta ausardia handiegia ez baldin bada, aipatutako kontzejuari eskatu nahi genioke zenbait gauza geure kolektibo osoaren izenean (6.500 pertsona zentsatuta Nafarroa osoan), gizarite guztia onerako.

Inor ez dadila asalatu bai bait

dakigu hemen inor ez gabela erabat akats gabeak, eta honexegatik orain jarri nahi ditugu Lekunberri, konponbide errexa duten akatsak. Lehendabizikoa, elizaurreko maldarik haundienak, behetik hartuta, hasiera latz edo zakarregia du. Bestea ongi dago. Bigarrena: parrokia atera ondoren eta bi adatsak jaitzita, plazatxo horretatik kalera ateratzeko kokxa bat dago. Horrek aterabide errexa dauka nahi izanez gero.

Hirugarren akatsa: eskola berriek badute atzekaldetik igoerata bat, baina oker ez bagaude, eten bat badaukate, eta aurretik beste koska bat dute gutxienez. Har ezazue gogoan, nahiz eta haurrak ez garen, sarritan tokatzen zaigula hauteskundetara joatea edo-ta lanetara.

Laugarrena: espaloiak, orokorrean, ongi eginak daude azkenean koska izan ezik. Arautegiak dio bukaera horrek gehienez 2 zentimetro izango dituela eta ongi borobildua izango dela, edo 45 gradutako angeluz burutua. Horretarako, mesedez, kontzejuko arkitektoak begira dezala legearen arautegia (89-VI-29) eta ikusiko du arrazoi dugula. Horrek ere ez dugu uste beste munduko konponbiderik eskatzen duenik.

Pozez beteta egongo ginatete orain arte bezala jarraitzen duzuela ikusiko bagenu, eta hemendik urte gutxira berriro zorionik eman behar bagenu. Nahi duzuen arte.



Xanti Begiristain Irakaslea





Lerako txakurrak Nafarroan



## Trineo, txakurrak, eta elurra: nork gehiago?

Duela hirurogeitazortzi urte, difteria izurriteak astindu zuen bortizki Alaska. Herrixka batek behar zituen botikak eramateko lerak eta trineoak erabili ziren orduan, mila kilometrotik goiti egin zen bidaia izugarrian, filme hobereenen tamainakoa. Horren ome-

nez, urte batzu beranduago, egun dagoen lasterketarik ospetsuena antolatu zen, eta hor hasi zen Euskal Herrira ere duela hiru urte heldu den kirol berria. Txakurrak, lerak, elurra... nahasketa ezin erakargarriagoa, gero eta haruntzago joan nahi dutenendako.

MATTIN KAPITANSORO / IRUNEA

Elurretako kirolek azken urteotan izan duten etengabeko gorakadan, urtetik urtera modalitate berriei ekiten diete zaletuek.

Batzuk asmatutakoak, zenbait 'zoro' aseezinean ibiliko balitz bezala, beti gorputzeko egonezina baretuko dion berritasun eske. Beste batzuk betidanik ezagutu diren iharduerak, baina moldatuta, gaurko garaiari egokituta. Azken hauek izan ohi dira arrakasta handien lortzen dutenak.

Horiatariko bat dugu lera edo trineoko txakurren afizio hau. Duela hiru urte hasi ziren Nafarroan lehendabiziko zaleak, eta beraiek dioten bezala, «lehendabizikoan parte hartzen duenak, ez dio uzten». Aralar edota Belagoa aldera, oraindik urriak izanda ere, hasiak dira ikusten Alaska edo Siberiako filmeak eta irudiak gogora ekartzen dituzten lera eta txakurrak.

Kirol hau Alaskatik heldu den zen Europara, eta hortik etorri da gero Euskal Herrira. Lerak nahiz txakurrak aspaldidanik erabiliak garraio bezala, kirolak 1924ean du jaioteguna, nolabait esateko. Nomen-eko (Alaska) biztanleek urte hartan bizituen difteria izurrite izugarria, eta beharrezkoa zuten gerlia eta botikak eramanez ahal izateko txakurrak eta lerak erabili ziren. Mila kilometrotik



Siberian husky.

gora zeharkatuz, abenturazko filmea bailitzan, botikak, azkenean, beren helmugara heldu ziren. Horren omenez, urte batzuk beranduago, 'Iditarod' izeneko lasterketa antolatu zuten, egun mundu osoan egiten den garrantzitsuena.

Alaska eta Canadatik Europara

etorri zen duela hogeitamar bat urte, eta hor ere izugarriko arrakasta lortu du. Frantzia, Suitza, Italia, Alemania eta beste zenbait tokitan 'musher' —partaideak— franko ezezik, lasterketa eta pista askotxo ere egokitzen ari dira horretarako.

Mail ezberdinak izaten dira, txa-

kur arraza eta txakur kopuruei dago-kienez. Horrela, Siberian husky arrazakoendako mail bat dago, eta beste arrazakoendako —alaska malamute, samoiedo eta groenlandiarra— beste bat. Hauen barruan ere multzo ezberdinak daude, leratik tiraka ari diren txakurren kopuruaren arabera.

Euskal Herrian oraindik ez da lasterketarik egin, baina lehendabiziko asmoak horretarako martxan daude. Izan ere, eta Donostian berriki egindako bileran, Euskal Herriko federazioa sortzeko lehendabiziko pausak aztertu ziren. Federazioa ezinezkoa izanez gero —arazo legalak direla eta—, kluba sortuko lukete horretan ari diren hogeitamar zaletuek.

Espainiako Txapelketaren barruan Euskal Herrian ere proba bat behintzat egitea da asmoa, eta EAE zein Nafarroako Kirol kontseilari-tzekin hitzegin behar dute, nolabaiteko onespina lortzeko. Hogeiren bat bildu zen Donostian, Koikili Fagoagak adierazten duenez, «giroa sortzeko, eta elkarren artean harremanak izateko. Materialea eta txakurrak ezagutzeko, eta abar».

Koikilik ere Aste Santurako zeharkaldia prestatu du, Lesaka eta Izabaren artekoa, eta Nafarroako zenbait zaletu animatu dira dagoeneko. Hau izango da Euskal Herrian egiten den mota honetako lehendabiziko proba.





Lerako txakurrak Nafarroan

# Koikili Fagoaga, txapeldun euskalduna

M.K. / IRUÑA

Lesakar honek bigarren postua lortu berri du aurtengo Espainiako Txapelketan, irabazlerarengandik hogeitasei segundu eskasera, eta bera da Euskal Herrian kirola bultzatzeko osatu berri den taldearen bultzatzaileakoa.

Duela bi urte hasi zen honetan Koikili, lagun batek txakurra oparitu zionean. Hasieran 'hobby' bezala, mendira eramaten hasi zen, eta 1990eko neguan ibili zen lehendabiziz elurretan.

Txapelketa honetarako bapatean animatu zen, «bertzelako asmorik gabe», eta lehendabiziko frogan bigarrena gelditu zen. Bigarrenen, lehendabizikoa.

Honek adore eman zion segitzeko, eta txakurrak ongi prestatzeko erabakia hartu zuen. Kirolan buru-belarri sartzea, alegia. Espainiako txapelketan lau proba egin dira aurtten, Benasquen, Alto Campoo, Baqueira Beret eta La Molinan. Berak hiru siberian huskyarekin hartu zuen parte, bi berarenak eta hirugarrena Jose Javier Saenz 'Makolok' utzitakoa, C-1 deritzan mailan.

Maila honetan bi eta hiru txakur bitarteko lerek hartzen dute parte, eta B-1 mailan, kasu, bost eta sei txakurren artekoendako dago egina. C-2, beste arrazakotako trineondako da, eta beste hainbeste maila dago. Mailen arteko ezberdintasuna kirolariak berak —'musher'— duen prestakuntzan dago, Koikilik adierazten duenez. «Nere mailan, adibidez, 'musherrak' doble lana egin behar du maldetan eta askoz prestakuntza handiagoa izan behar du. Adin batera heltzerakoan edo oso kirolaria ez bada, txakur gehiago paratzen dira, maldak eta, arazorik gabe igotzeko. Hala ere, erritmoa asko jaisten da».

Europar txakur bakarrek lerek —pulkak— ere hartzen dute parte lasterketan, baina Espainiako txapelketan ez zen inor aurkeztu.

Lau probetan, batezbeste, zazpi

kilometroko ibilbidea zegoen, mota guztietakoak. «Alto de Campoo eta Benasquekoak, adibidez, arrunt gogorak ziren, malda oso handiak eta. Baqueira Beretekoak, ordea, gozada bat zen».

Txakurrak prestatzeko Lesakako bere etxe ondoan duen bidean aritzen du Koikilik. Hiru gurpiletako karrua hartu eta erresistentzia zein sprintean trebatzen ditu txakurrak. «Igande eta larunbatean kilometro aunitz egiten ditugu erresistentzia, eta astetartean, adibidez, arratsean, sprinta egiten dugu. Lau kilometro bakarrik egunean, eta ni bizikletan, aintzinean. Orduan, topera joaten gara, oihuka,

**T**xakurra liderra jaiotzen da, eta hori ez da izan behar gehien tiratzen duena, azkarrena eta buru gehien daukana baizik. Tiratu, giblekoek tiratuko dute beti, aintzinekoak ez du hori egin behar, lera zuzen eraman baizik.

eta erritmo aldatzeko».

Pistetan ibili behar izateak txakurren hatzaparrei kalte egiten die askotan, eta horretarako goante antzekoak paratzen zaizkie txakurrei, babesteko.

Txakurrak aukeratzeko oso kontutan hartzen

da aintzinean joango dena, noalabait lera gidatuko duena. Koikilik adierazten duen bezala, txakur horrek oso berezia behar du izan. «Aunitz entrenatuta ere ezin da txakur on bat egin. Berez, ona behar du izan. Nik txakur guztiak entrenatzen ditut igual, igual, baina badago eme bat aintzinean ibiltzen dena, gutti gutti ikusten diren horietakoa. Tiratzen ez du inoiz etsitzen, eta kilometro pila eginda ere, fresko amaitzen du».

«Txakurra lider jaiotzen da» dio Koikilik, «eta hori ez da izan behar gehien tiratzen duena. Azkarrena eta buru gehiena duena izan behar. Tiratu, giblekoek tiratuko dute, aintzinekoak ez du tiratu behar».

Tratoan ere desberdin tratatzen ditu, eta aintzinekoa etxean gordetzen du. Berari ere hitz egiten dio bereziki, «besteek ikus dezaten mailak ere badaudela eta errespetua izan diezaioten». Frantzian egindako proban ere parte hartu zuen Koikilik pasa den urtarrilean, eta han ohartu zen Europar dagoen maila, ez bakarrik materiale eta txakurrei dagokionez, baita prestaketari begira ere.



Koikili Fagoaga La Feglazen (Frantzia) korritu zuen lasterketan.

## Izugarrizko gozamina da zaletuarentzat txakur hauek hezi eta prestatzeko lana

M.K. / IRUÑA

Txakurrak kirol honetan parterik garrantzitsuena izanda, haiek jasotzen dute zaletuen zainketa eta denbora gehiena. Profesionalek beren txakurrak izaten dituzte, eta soilik taldea berritzeko hazten edo erosten dituzte.

Hala ere, orain arte Nafarroan izan diren txakur gehienak kanpotik ekarritakoak izan dira, ez bait zegoen haziko zuenik. Duela hiru urte, baina, Iruñean bertan dago arrazako txakur hauek hazi eta zaintzen dituen: Jose Javier Saenz, 'Makolo'.

Bertan daude, trineorako beste arrazekin batera, Euskal Herrian aurki daitezkeen groenlandiar arrazako txakur bakarretakoak. Arraza hau, arraroa oso da, oso zaila bait da bere haziketa, baina Makolok iaz lortu zituen Estatu espainiar osoan jaio diren lehendabiziko groenlandiar txakurkumeak.

Zubietar hau duela hiru urte hasi zen lerako txakurrekin, eta egun, aipatu groenlandiar arrazakoez aparte, lau siberian husky eta lau samoiedo ditu. Bertan ere Alaska malamute izeneko arrazakoak badira.

Denen edertasuna eta ezaugarri bikainak aipatzen baditu ere, bereziki gogoko ditu groenlandiarrak. «Italiar profesional bati erosi nizkion —azaltzen du— eta horietariko bi Mont Blanc mendia leraz igo duten lehendabiziko txakurrak izan dira».

Txakur hauekin aritzeko jakinminak bultzatuta hasi zela dio Makolok, baina ondoren zeharo bereganatu zuten, «oso bereziak direlako, independenteak eta berekoiak oso, baina

ez biolentoak. Samoiedo eta siberian huskyak, kasu, ederki asko izan daitezke konpainiakoak».

Txakur hauek, baina, zama eramateko daude prestatuta, eta edertasun lehiaketetan aritzen badira ere, lepotik zerbait zintzilikatuz gero, segituan tiraka hasten direla adierazten du Makolok. «Batzuek bizi bizi dute tiratzeko instintoa, eta beste batzuei piztu egin behar zaie. Horretarako, adibidez, kate bat zintzilikatzen diegu lepotik, eta hilabete pasata edo, segituan horretarako joera hartzen dute».

Zamaren kariaz, bizkarra okertu egiten zaie askotan, baina ez dituzte ondorio fisiko kaltegarriak izaten. «Batzuk pentsatzen dute zigorra dela haiendako, baina arnes bat ikusiz gero gozatu baino ez dute egiten. Horregatik, normalean, ez ditut txakurrak saltzen, batez ere groenlandiarrak, leraren aurretik paratzeko direla ziurtatzen ez baldin badut. Horrelako txakurrak ezin daitezke etxe batean eduki».

Txakurrez aparte, Iruñeko 'Soltxate' bere txakurtegia arnesak eta lerarako sokak ere saltzen ditu, eta gutxi barru lerak egiten hasteko asmoa badu. Egurrezkoek karbonozko fibrakoei utzi diete lekua, eta Estatu

espainiar osoan egiten duenik oraindik ez dago. Hori dela eta, egin eta saltzeari ekingo dio, merkatua oraindik murriztua izanda ere. «Gora egingo duen kirola da hau, mendia, elurra eta txakurrak batzen dituelako. Izugarri polita da, eta inork ez dezala pentsa txakur pila eduki behar duenik. Batekin ere, egin dezake kirola».

Etxean horrelako txakurrek ematen dituzten arazoak konpondu nahian, txakurtegia bertan edukitzeko lekua prestatu nahi du Makolok, edonorendako.



Makolo Soltxaten.



Koikili Taiga eta Lee bere txakurrekin.

SOLTXATE

### SOLTXATE

- Txakurrentzako Egoitza
- Haztegia

Siberian Husky - Samoiero  
Groenlandes - Eurasier

Santa Luziako bidea. 7/g

(948) 12 09 32-22 99 61 Tf.ak

IRUÑA



## Gazteendako Zokoa

Argi—oilarra  
Upupa epops

Oso bakartia  
Txofrakiei kiratsa darie  
Beldurti oso



### Penatxoa buruan

Itxura ederrekoa, kopetan duen penatxoak oilarraren izena eman dio Nafarroako leku frankotan. Hegoak eta sorbalda marra txuri beltzek zeharkatzen dituzte. Oso moko luze dauka, eta horren bidez aztertzen du lurereko zuloetan eta zuhaitzetakoetan hain gogoko dituen intsektu bila—matxinsalto, txinaurriak—. Batzutan ere animalia txikiak—sugandilak barne—harrapa ditzake.

Intsektu hauek azal gogorra baldin badute, lurraren kontra kolpatzen dituzte, puskatu arte. Ondoren, barruko zati bigunak jaten dituzte.

Bakartia da, eta normalean bakarrik aritzen da. Beldurti oso, miru gorriak benetako izua sortzen dio, eta ikusi bezain laster lurraren kontra gelditzen da etzanda, buztana zabalik eta mokoa altxata. Horrela gelditzen da arriskua desagertu arte.

Txofrakia zuhaitzen txokoetan edo harkaitzetan paratzen ditu, eta oso ezaguna da botatzen duten kiratsa. Batzuek esaten dute ongarriak bertan botatzen dituela, baina txorikumeek beraiek botatuko jarioek sortuta omen da. Hala ere, behien ongarrietan aritzeko joera badu argi-oilarrak, bertan dauden insektuak hartzeko.

Nahiko zabaldua dago Nafarroa osoan zehar, baina urriagoa da ipar aldera.

### RICARDO LOPEZ

Bazen behin mutil gazte bat, zeinari beldurrezko historioak, ipuinak eta pelikulak gustatzen zitzaizkion. Klasera joaten zen normalki, oso zintzoa bait zen. Etxeko lan guztiak egiten zituen, eta ez azken egunean gainera, eta nota onak ateratzen zituen.

Astelehena bazen ere, berdin zitzaien, zeren gau hartan beldurrezko pelikula bat botatzen bait zuten telebistan. Berandu joan zen ohera, pelikula gaueko ordu ttipietan bukatu zen, eta beldurtuta zegoen. Adi zegoen, argi guztiak piztu zituen, eta orduan korrika joan zen bere logelara beldurrez, baina heldu bezain laister, lasai asko geratu zen. Argiak itzali eta oheratu zen.

Lokartu bezain laister ametsetan hasi zen, eta ametsak oso erreala zirudien. Bere gela ilunean argi bat piztu zen, logelaren justu erdi-erdian. Zerbait jantzi eta argirantz abiatu zen.

Argiaren aurrean zegoen bai, baina beldurtuta oso, praktetan pixa egitearainoko beldurra zuen. Argiaren parean zegoenean, besoak luzatu egin zituen argia zeharkatu asmoz, eta zerbait arraroa somatu zuen, zerbait zoragarria. Horregatik argia zeharkatzen abiatu zen.

Argia zeharkatzen ez zitzaien hain zoragarria iruditu. Dena ilun-ilun zegoen, baso ilun batean zegoen, beldurtuta oso. Zurrumurruak entzuten zituen bere aurrean, atzean, alboetan, abots arraroak entzuten zituen, ez baitzekien zeharkatzen zirela.

Aurrera jo zuen, dardarka, baina ezin zuen aurreratu, beldurtuta bait zegoen.

A ze gaztelu handia eta misterio-tsua...! Nonbait ikusi zuela iruditu zitzaien, baina orain ez zen oroitzen non, ezta ze gaztelu zen ere. Gaztelurantz abiatu zuen, hotzak eta goseak zegoelako. Gaztelura ailegatzerakoan, atean jo zuen. Ez zion inork ireki baina hala ere sartu egin zen, atera irekita bait zegoen.

Gaztelura sartu orduko deika hasi zen: —Ba al dago norbait hemen?

Inork ez zion erantzun, bere aurrean eskailera luze batzuk zeuden, eta igo egin zituen. Nekatuta zegoen, eta ohe baten bila abiatu zen. Aurkitu zuen lehenean etzan eta lokartu zen.

Egun hartatik hona oraindik ez dute mutil hura aurkitu. Beste amets batean murgildurik egongo ote da?

# Ametsa



## Gure artzainak

### ION MATXAIN

Lehenago egunean Madoztik pasa nintzen, eta bertako artzain batekin egon nintzen hizketan. Ardiek gero eta diru gutxiago ematen omen dute. Artzain honek egunero mendi ton-torreraino igo behar izaten du, eta bere bizitza oso latza eta gogorra da.

Nik artzainak asko miresten ditut, gure kulturaren zaintzaileak izan direlako milaka urtez, bai, milaka urtez.

Baina, eta hau gauza arraroa, Oderiztik pasatzerakoan, bertze artzain batekin egin nuen topo, eta komentatu egin nion Madozko artzainak esan zidana.

Espero ez nuen erreakzioa izan zuen artzain honek, parrez hasi bait zen. Berak esan zidan justu kontrako zela. Beraiek gero eta diru gehiago irabazten dutela. Berarekin pixka batean hitz egin eta gero, nire bidetari jarraitu nion.

Menditik sartu eta Iribastik oso gertu nengoela, beste artzain batekin egin nuen topo. Honi ez nion komentatu besteek ziotena, zeren agian honek jo egingo ninduen. Tipo xelebrea zen benetan. Berarekin eguraldiari buruz hitzegiten hasi nintzen. Azkenean, berak esan zidan hurrengo astean zehar, elurra egingen zuela.

Nik hori, elurrarena, ez dut gustoko. Horretan pentsatzen nihoala, Iribasera heldu nintzen. Bertako plazan eseri egin nintzen, atsedean hartzeko edo. Hamar minutu neramatzanean, artzain bat hurbildu zitzaidan eta kortes izateagatik berarekin mintzatzen hasi nintzen. Ez dakit nola, baina eguraldiaren gaia azaldu zen, eta hau kontraesana! Tipo honek zioen hurrengo bi asteetan primerako eguraldia izanen genuela. Etxerako bueltan nintzenean, Baraibar aldera edo, artzain bat mendi puntan ikusi nuen, bera bakarrik dantzatzen. Orduan konturatu nintzen. Gure artzainak burutik eginda daude.

## KAZKARROAN

### Minifalda eta amona

Amonak ilobari minigona zergatik jazten duen galdetzen dio. Arbizuko bertso eskoletakoa.

Amona zaharra denbora ere egin zaigu guri alda denborarekin batera ere igo beharreko malda orain zopa're sobreakoa da ahaztuta daukagu salda gona beharre(a)n ipintzen degu guk neskaxok minifalda iztar politak erakustea amona pekatu al da?

Oihane Olaberria

## KONTRAPASA

1. Toka, badugu
2. Aintzira
3. Balio
4. Hari, genuen
5. Joan gaitezen

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Behoko taula osatu ondoan Imotzen jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu

B	5	A	4	A	9	D	6	B	3	B	10	B	11
A	5	A	2	D	7	A	11	D	1	D	10	A	10
D	5	A	6	D	11	B	6	B	12	D	12		
B	7	B	1	D	3	B	8	A	12	A	3		
D	8	A	1	D	9	A	7	D	2	B	2		

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
A												
B												
D												

N-13

## Zaharrak berri

Mukirik ez, ta pañuloa.

Beharrik ez duenak, bi.

Larraun

Gaztetako alferra, zahartu eta nekez bete.

Alferra beti alfer.

Labaien

—Edariak lana galeratzen dit. Utzi behar dut.

—Zuk, edaria utzi?

—Edaria ez, lana.



## Bizi Bizian

# Altsasuko Euskal Txokoa

**J**oan den ostira-lean egin zen Altsasuko Gure Etxean euskal txokoa bat sortzeko bilera. Bertan iazko udaberrian sortu zen Kima taldearen txostena aurkeztu zen, eta euskara bultzatzeko elkarterako lehendabiziko asmoak plazaratu ziren. Jende franko aurkezpenean, bazkide txartelak hasiak dira banatzen, eta bidea oso luzea izanda ere, Burundako herrian euskarak duen egoera penagarriari irtenbidea emateko hasiak dira euskalzaleak mugitzen. Lana denona dela azpimarratzen dute taldekoek, eta herri osoaren inplikazioak ezinbestekoa dirudi.

ALBERTO BARANDIARAN / ALTSASU

Altsasuko Euskal txokoa egiteko ideia iazko udaberrian sortutako Kima taldetik atera zen, Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak bultzatuta. Altsasuko euskaltzale talde bat bildu zen honen inguruan, eta lehendabiziko bileretatik asmoa aurrera eramateko txosten bat prestatzeari ekin zion.

Ekainerako txostena nolabait egin zegoen, baina lehendabiziko pausak ez ziren oso pozgarriak izan, urrian Altsasuko zenbait euskalduneri egindako deiak ez bait zuten espero zen arrakastarik lortu. Ehun lagun aukeratu ziren, ustez jarrera ona izan zezaketenak, baina bilerara soilik hamabost azaldu ziren. Ondotik, ez zuten jarraipenik izan, eta zenbait salbuespen kenduta, lehengo talde bera izan zen lanean jarraitu zuena.

Bigarren urrats garrantzitsua asmoak gorpuztea zen, eta Elgoibarko Izarra taldeak egindakoa irizpidetzat hartuta, dei zabalagoa egitea erabaki zuten taldeak. Aurretik sentsibilizazio kanpaina martxan jarri zuten, eta herri osoan zehar kartelak paratu ziren, arlo ezberdinetako altsasuarren iritzi eta argazkiekin. Honekin batera, herrian dauden euskaldunen zereenda egin zen, eta bilerara joateko deia luzatu zitzairen, eskutitzen bidez. Aipatu bilerara, berrogeitamar bat lagun azaldu zen. «Espero baino gehiago», Joxepi Markinez taldeko bultzatzailetakoak esana.

### LAN TALDE EZBERDINAK

Gure Etxeako bileran Imanol Larrañaga Elgoibarko taldeko partaidea egon zen, bertan eman den prozesua eta esperientzia azalduz. Honekin batera, prestatutako txostena ere azaldu zen.

Bertan, eta Altsasuko egoera azaldu ondoren, elkarteak izango litzkeen helburuak zehazten dira, eta nagusia euskaltzaleen biltokia izatea. Bigarrena, euskara eta euskal kulturarekin lotutako iharduera bultzatu, antolatuta eta koordinatzea.

Horretarako lan taldeak osatuko lirateke, txostenaren arabera. Sentsibilizazio taldeak Altsasun euskararen presentzia gehitzea izango luke zeregina. Horretarako, erakunde eta mota guztietako zerbitzuen euskararen erabilpena bultzatzeko luke, eta baita Altsasuko dendetan edota

publizitate eta idazkiena ere.

Kultur sustapenerako taldea kalitatezko kultur eskaintza iraunkorra emateaz arduratuko litzateke, bai hitzaldiak, mahainguruak, lehiaketak, jaialdiak edota ikastaroen bidez.

Hirugarrena hezkuntza taldea izango litzateke, eta horretan haurrak zein helduendako arloak sartuko lirateke. Haurrendako, klasetik kanpo euskararen erabilera bultzatzeko ekintzak antolatzea da helburua, eta helduendako arloan, euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazio kanpainari ekitea.

Elkarteak hiru mailatan banatuko litzateke. Batzar Nagusia, bazkide guztiek osatuta, Zuzendaritza Nagusia, aurrekoak aukeratuta, eta urteko ildo nagusiak erabakiko litzuzkeen, eta lan taldeak.

Guzti hau aurrera eramateko bazkideak behar direla eta, horretarako txartelak banatu ditu taldeak, eta ekaina arte eman du epea zenbat jende ematen duen izena eta zer nolako lanak egiteko prest dagoen ikusteko. Kuotak edozeinendako eskuragarriak izanik —500 pezeta edota 250 pezeta hilerok—, erantzunaren esperoan daude orain taldean, asteazkenero Gure Etxean egiten duten bilerekin aurrera jarraituko badute ere.

Euskal Txokoa egitasmo orokorra bada ere, toki bat eskuratzeko ahalginak ere helburu nagusienetakoa du taldeak, eta horretarako harremanetan jarriko da udalan dauden alderdiekin, udalak berak lokala utz dezan. Hori lortzeko, ezinbestekotzat dirudi talde sendo bat atzean izateak, baina Markinezek adierazten duenez, lokala ez lortuta ere taldeak aurrera egingo du. «Eztabaida izan zen, garrantzitsuena lokala hala jendea ote zen. Garbi dago jendearen bultzada behar dela lehendabiziz, bai asmoa egi bihurtzeko nola lokala lortzeko. Lokalarena zaila da, baina hori gabe ere lan taldeak osatu daitezkeelakoan gaude».



Orain arteko bilerak Gure Etxean egin ditu Kima taldeak.

## Sakanan barra-barra, Altsasun ia mutuak

A.B. / ALTSASU

Altsasun euskarak duen egoera aztertzeke orduan, ezinbestekoa da inguruko herrien egoerari ere erreparatzea. Izan ere, eta mende honetan bereziki izan duen hazkundeari esker —industrialia nola biztanlegoari dagokionez—, Sakanako herririk garrantzitsuenak bihurtu da, behialan Etxarri Aranatzek zuen nagusitasunarekin hautsiz.

Sakanaz hitzegiterakoan Ziorditik Arruazu bitartean dauden herriak hartu ditugu kontutan, Ergoiena barne, horietatik bait dira Altsasuko eragin zuzenena dutenak.

Horrela, euskararen alde Altsasun egin beharreko saio guztiek ondoko herrien egoera ere kontutan hartu beharko dutela esatea badago, elkarren arteko harreman eta eraginak oso handiak dira eta.

Zona honetako biztanleak 15.365 lagun izanik, Altsasun ia erdia dago, 6.904, hain zuzen ere. Euskaldunen kopurua handia da herri gehienetan, Altsasun, Ziordin eta Olaztin ezik, bertako erdaldunak % 70-80 bitartekoak bait dira.

Beste herri guztietan erdaldunen kopuruak ez dira % 10era heltzen, eta azpimarratzeko da Etxarri Aranatzek, kasu —zonako bigarren herria—, eskaintzen dituen datuak: % 82 euskaldunak dira, eta horietatik % 75 alfabetatu edo ia alfabetatuak.

Zona osoak euskararekiko duen jarrerari dagokionez, Nafarroako Gobernuak egindako azterketaren arabera, aldeko nabarmena dela esan

daiteke, biztanlegoaren % 78,3k aldeko edo oso aldeko jarrera erakusten bait du. Bereziki azpimagarria da oso aldeko jarrera duen % 28,3. Erabilari dagokionez, % 53,6k euskaraz egunero edo maiz mintzatzen dela esan du, eta % 3,5ek ez du sekula euskaraz aditzen. Komunikabideetan euskararen lekua nabarmen jaisten da, eta soilik telebistari dagokionez mantentzen dira kopuru handiak: % 49,6k egunero euskarazko saioak ikusten dituela adierazi du.

Datu hauek behin aztertuta, garbi dago Altsasun euskara bultzatzea mesedegarria litzatekeela ez bakarrik bertan, baizik eta alde osoan ere. Harreman estuak izateak prozesua azkartu lezakeela dirudi, baina proiektu sendoa aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da Altsasun dagoen azterketa sakona, datu hutsetatik harantzago.

Galeraren arrazoiak nabariak eta ezagunak izanda, euskaraz gutxi hitzegiteko arrazoiak dira bilatu behar direnak, aterabide zehatza eta zentzuzkoa aurkitu ahal izateko. Euskaldunen biztanlegoaren % 10 osatzen duten herrian —ondoan eremu euskalduna izanik—, erabilera hutsaren hurrengo izateak kezkatzeko arrazoiak ematen bait ditu.

Prozesu honetan ere lagungarria oso gerta daiteke biztanlegoaren gehiengoak adierazten duen euskararen aldeko jarrera hori, garbi dagoelako euskararen berpiztea Altsasun herri osoko lana izan behar dela. Horretan ere, erakunde guztiek zeresan handia izango lukete.

### Euskararen datuak

	Biztanleak	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
Altsasu	6.904	808 (% 11,7)	535 (% 7,74)	5.561 (% 80,55)
Sakana (*)	8.461	5.218 (% 61,6)	1.098 (% 12,9)	2.145 (% 25,3)

### Euskararekiko jarrera (\*\*)

	Aurkakoa	Axolagabea	Aldekoa	Oso aldekoa
	% 6,7	% 15	% 50	% 28,3

### Erabilpena

	Egunerokoa	Maiz	Aditu bai, baino mintzatu ez
	% 39	% 14,6	% 42,5

(\*) Ziordia, Olazti, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Ergoiena.

(\*\*) Altsasu barne.



## Estitxu Arozena

bertsolaria

# «Ez dut gizonezkoen beldurrik»

**EGUNKARIA.**— Nafarroako Txapelketan parte hartzeko animuz?

**ESTITXU AROZENA.**— Egia esan dena oso laster joan da. Duela urte bat hasi nintzen eta segidan Gipuzkoako txapelketan hartu nuen parte, eta saiotara baino gehiago txapelketara ohituak gaude. Eskolarteko txapelketan kantatu nuen Zumaian eta finalera iritsi nintzen, gero finalean hirugarren postua lortu eta Euskal Herriko finalera pasatu nintzen. Nahiz eta lehendabiziko urte izan hori izan da gure plazaratzeko modua, eta orain paper on bat egiten saiatuko gara.

**EGUNKARIA.**— Orain berriz Nafarroako txapelketan hartuko duzu parte eta jakina, gehienak adinez aurrera doazenak izango dira zu ezik. Izena ematerakoan kontutan hartuko zenuen hori.

**AROZENA.**— Izena ematerakoan kontutan hartu dut kapaz naizen edo ez. Uste dut Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartzen duen lehendabiziko neska naizela, baina ohituta nago. Adibidez Baigorriin, Emile Larreren omenaldian jende pilo bat zegoen Nafarroatik eta denak gizonezkoak ni ezik. Neska bakarren bertso saioak gutxitan izaten dira. Lesakan ere egin genuen saioa eta ni bakarrik neska. Mentalizatu gara bertsolaritza nahiko matxista dela eta saiatu behar dugu hor sartzen ahalik eta neska gehien.

**EGUNKARIA.**— Eskola zaharreko

bertsolari askok gordinkeriak botatzeko ohitura dute. Prestatuta al daukezu erantzuna?

**AROZENA.**— Prestatuta ez. Bakoi-tzak momentuan bere arrazoiak izaten ditu. Nik uste dut emakume eta gizonezko gazteak ohartu direla emakumeak ez garela gauza batzuk eta oso zaharrak ez baldin badira behintzat, teorikoki onartzen dituzte emakumeen berdintasunezko teoriak, nahiz eta gero praktikara ez eramaten.

**EGUNKARIA.**— Orduan ez zara beldur?

**AROZENA.**— Ez dut gizonezkoen beldurrik, soilik horrelako saioetan bertsolariet izaten dituen gauei, nerbioei eta horrelako gauzei. Ez dut espezifikatzen beldur hori gizonezko eta emakumeen arteko diferentzian.

**EGUNKARIA.**— Nola izan da zuretzat idatzitik bapatekotasunara pasatzea?

**AROZENA.**— Bostgarren mailan hasi nintzen bertsoetan. Idatzitan ere ibilia naiz eta ez zitzaidan hainbeste kosta bapatekotasunara pasatzea. Zortzigarren maila arte ikasten jarraitu nuen eta BUPen hasi nintzenean utzi egin nuen urtebetez. Baina bigarrenean bertso eskola sortu zen. Apirilean nere aitak esan zidan Gipuzkoako txapelketan plazaratu atera behar nuela. Momentu hartan ez nuen nere burua kapaza ikusten pausu hori emateko. Nere aitak esan ziden bazekiela noraino nintzen kapaza eta

**E**stitxu Arozena bertsolari gaztea Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartzen duen lehendabiziko emakumea da. Manolo Arozena iazko txapeldunaren alaba, ttikidandik sartu zitzaion bertsoaren grina. Plaza atera zen

lehenengo alditik oraindik urtea bete ez denean, 17 urteko neska hau gizonezkoekin lehiatuko da, baina berak esan digunez ez du beldurrik. Hile luzea eta horia, Negu Gorriaren bisera eta bota militarrek, bertsolaritzaaren aurpegi berria.



Estitxu Arozena.

JOXE

parte hartzera bultzatu ninduen. Azkenean finalera pasatu nintzen. Izugarriko sorpresa izan zen niretzat.

**EGUNKARIA.**— Eskola zaharreko bertsolariet beste itxura bat izaten dute. Zu Negu Gorriaren bisera batekin eta bota militarrekin etorri zara.

**AROZENA.**— Iturriagak esaten zuen bezala ez dut uste txapela eta abarrek ateratzea nahiko dutenik. Ber-

tsolaritza gauza bat da, eta zu gaztea zara eta zure estiloa duzu, nahiz eta gero bertsoei inportantzia eman. Aunitzek bi gauzak nahasten dituzte. Nahiz eta pintaje hauekin joan igoal gero munduko neska jatorrena zara. Zaharrak ez dira mentalizatzen horretara, baina biak egoten ahal dira nahastuak.

**EGUNKARIA.**— Aita kontent egonen

da zu plazan ikusita. Bere pausue jarraitu nahi al diezu?

**AROZENA.**— Aita oso kontent dago eta ez uzteko eskatzen dit beti. Baina berea eta nerea desberdina da. 38 urtekin plazaratu zen bera eta ni 16rekin, bera plazaratu baino lehen. Oso desberdina da.

**EGUNKARIA.**— Aita plazaratu eta berehala Nafarroako txapela eskuratu zuen. Zure bidea besteena baino errexagoa izanen da... Eskola berriari ikasia zara baina zaharretik ere izanen duzu zertxobait.

**AROZENA.**— Lau urtetako ia bankizkien Amurizaren bertsoak buruz Zaharrena beti hor gelditzen da, baina orain nere idoloak Sarasua eta Joan Maia dira. Repeatzen dutenean ere asko gustatzen zait.

**EGUNKARIA.**— Zein dituzu gustokoen gaiak?

**AROZENA.**— Segun ze lagunartean nagoen. Politika ere bai, baina gehiago gustatzen zaizkit gazteen kontuak. Koadrilan elkartzen garenean eta bertsoetan hasten garelikan ba normalean hizketan erabiltzen dituzun gaiak ateratzen dira. Hori da gehien gustatzen zaidana. Batzutan ezagutzen ez dituzun gaiak inposatzen dizkizute eta orduan ez zara jartzen, zeren ez zaizkizu zuri behin ere gertatu. Baldin badira gaiak zure dagokizunak askoz hobea.

**EGUNKARIA.**— Nola ikusten duzue giroa zuren adinekoen artean? Bortzirietan bada bertso eskola...

**AROZENA.**— Koadrilan hamase gara eta sei bertso eskolan gaude. Imaginatu ze giroa! Afari bat egiten dugunean afalondan beti bertsoetan hasten gara. Azken hontan Bortzirietan modan jartzen ari da bertsoaren aritzea. Nahiz eta idearik ez izan festa bat egiten denean bertsoetan hasten da jendea. Denak badakite zure den bertsoa eta saiatu egiten dira.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

